



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Pertsonen enplegurako konpetentzia garrantzitsuak; pertsonen ezaugarriak

72. dokumentua

2020ko urria

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

Departamento de Innovación y Sociedad del
Conocimiento. Diputación Foral de Gipuzkoa



GIPUZKOA
berrikuntza lurraldea

1. Pertsonen enplegurako konpetentzia garrantzitsuak; pertsonen ezaugarriak	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Pertsonen konpetentzia garrantzitsuak	5
2.1. Pertsonen konpetentzia garrantzitsuak	5
2.2. Konpetentzia garrantzitsuak eta generoa	9
2.3. Konpetentzia garrantzitsuak eta adina	10
2.4. Konpetentzia garrantzitsuak eta lortutako ikasketa maila	12
2.5. Gipuzkoako pertsona helduek lortutako ikasketa maila	14
3. Konpetentzia garrantzitsuak gaur egungo eta etorkizuneko enpleguan	16
3.1. Konpetentzia garrantzitsuetan orain dagoen eta etorkizunean egongo den eskakizun mailaren pertzepzioa	16
3.2. Konpetentzia garrantzitsuetan orain dagoen eta etorkizunean egongo den eskakizun mailaren pertzepzioa eta pertsona motak	18

1. Pertsonen enplegurako konpetentzia garrantzitsuak; pertsonen ezaugarriak

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurune Departamentuaren helburua da Gipuzkoa ikasten duen lurralde bihurtzea¹, pertsonen eta gizarte-eragileei bizitza osoko ikaskuntzaren garrantzia nabarmenduta, befieri, garapen sozial iraunkorren eta lehiakorren enplegagarritasuna eta herritartasun aktiboa bultzatzeko.

Proiektuaren testuinguruan, okupatutako pertsonen galdeketa egin zaie duten kualifikazioari eta enpleguan oinarritutako konpetentziei dagokienez. Zehazki:


- Hauek dira konpetentzia garrantzitsuak²: soft skills-ak edo gaitasun pertsonalenak, eta konpetentzia digitalak.
- Proposatutako konpetentzia-panela aintzat hartuta, pertsonen gaitasunaren araberako balorazioa egitea eskatzen da.
- Konpetentzia horiek eskatzearekiko pertsonen egiten duten balorazioa eta garatzen dituzten zereginetan eragiten duten aldaketaren inpaktua ere biltzen da. Gaur egun eskatzen ote diren eta etorkizunean lanpostuan eskatuko diren konpetentzien diagnostikoa egiten ote den edo ezagutzen ote den ebaluatzea da helburua.

¹ Pertsonen bizitzan zeharreko konpetentzia garrantzitsuak garatzeko asmoz Europako Batzordetik sustatutako eta 2020ko uztailean argitaratutako "European skills agenda for sustainable competitiveness, social fairness and resilience" argitalpenean indartutako ekimenekin lerrotuta dago helburua.

² 2018ko maiatzaren 22ko "Europako Batzordearen gomendioa, ikaskuntza iraunkorrerako konpetentzia garrantzitsuei buruzkoa" txostenean zehaztutakoak.

Informazio multzo hori okupaturako pertsonen ezaugarritzeari lotutako hiru blokerekin osatu da: osagai pertsonala (generoa, adina edo ikasketa maila), enpleguari dagokiona (okupazio, kontratu eta lanaldi mota) eta titulazioaren egokitasuna garatzen duen enpleguarekiko.

1. grafikoa **Konpetentzia garrantzitsuen mapa, pertsonen ezaugarriak eta balorazio arloak**



Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Departamentua (2020)

Lanean ari diren Gipuzkoako herritar helduek (25-64 urte) konpetentzia garrantzitsuetan edo soft skills direlakoetan lortutako emaitzan oinarritzen da dokumentu hau, eta kontuan hartzen dira haien ezaugarri pertsonalak generoari, adinari eta lortutako ikasketa mailari dagokionez.

2. Pertsonen kompetentzia garrantzitsuak

2.1. Pertsonen kompetentzia garrantzitsuak

Bi lagunetik batek uste du kompetentzia garrantzitsu bakoitzean duen gaikuntza altua dela

Erantsitako taulan jasota dago okupatutakoen (25-64 urte) gaikuntzaren balorazioa, proposatutako kompetentzia garrantzitsuen panelarekiko, oso maila baxutik oso altura doan balorazioarekin.

Lortutako emaitzek, lehenik eta behin, erakusten dute pertsona gehienek uste dutela gaikuntza ertaina edo altua dutela; izan ere, bi balorazioak dituzte kompetentzia bakoitzean erantzun-ehuneko altuenak.

1. taula Kompetentzia garrantzitsuetan duten gaikuntzarekiko pertsonen duten pertzepzioa

Banaketa horizontala (%), okupatuak (25-64 urte)

	oso baxua/baxua	ertaina	altua	oso altua
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	2,6	31,8	47,8	17,8
Informazioaren antolaketa eta analisisa	3,4	31,8	50,8	14,0
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea	3,8	27,6	50,4	18,2
Nola ikasi jakitea	3,8	33,0	48,6	14,6
Sareko lankidetzak (pertsonekin)	5,0	27,2	51,6	16,2
Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna	1,4	23,0	54,8	20,8
Ekimena eta ekintzailetasuna	4,2	27,8	49,8	18,2
Irudimena eta jakin-mina	5,6	27,6	45,2	21,6

Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta kompetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua (2020)

Bigarrenik, eta zehatzago, honako hau ikus daiteke:

- Bi lagunetik batek uste du kontuan hartutako konpetentzia bakoitzean duen gaikuntza altua dela. Gainera, egokitzeko arintasuna eta gaikuntza (% 54,8) da konpetentzia maila altua dutela dioten pertsonen ehuneko handiena biltzen duen konpetentzia. Zertxobait ehuneko baxuagoak adierazi dituzte irudimena eta sormenean (% 45,2) eta ahozko eta idatzizko komunikazioan (% 47,8), baina hala ere gehiengoa biltzen dute.

- % 14,0 eta % 21,6 artean kokatzen da proposatutako konpetentzia bakoitzean gaikuntza oso altua dutela uste dutenen ehunekoa, eta hori bat dator informazioaren antolaketa eta analisiarekin eta irudimen eta jakin-minarekin.

Hain zuzen ere, irudimen eta jakin-minari dagozkion konpetentziak eta egokitzeko arintasun eta gaitasunaren konpetentziak lortu dituzte gaikuntza oso altua dutela uste duten pertsonen ehuneko altuenak (% 21,6 eta % 20,8).

- Hiru pertsonatik ia batek uste du konpetentzia bakoitzean duen gaikuntza maila ertaina dela, eta aldiz, ia hutsala da gaikuntza maila baxua dutela uste dutenen ehunekoa.

Nabarmendu beharrekoa da batez besteko gaikuntzarekin lotutako ehuneko handienak pertsona bakoitzak bere gaitasunen inguruko neurketa objektiboena egin dezakeen konpetentzietan daudela. Zehazki, nola ikasi jakitea (% 33), ahozko eta idatzizko komunikazioa eta informazioa aztertzea eta antolatzea (% 31,8 bi kasuetan).

- Hain zuzen ere, ia "gaitasun pertsonalak" diren konpetentzietan dituzten gaikuntzen balorazioa egitean pertsonak "eskuzabalagoak" direla esan daiteke, eta aldiz, objektiboagoak eta/edo "hautemangarriagoak" diren konpetentzietan balorazioa okertu egiten da.

Hiru gaikuntza maila hiru konpetentzia taldeetarako


Lortutako datuek, ranking gisa aurkeztuta (1etik 5era, gaikuntza txikienetik handienera) ez dute alde handirik erakusten lortutako emaitzetan. Hala, konpetentzia bakoitzean pertsonen gaikuntza 3,74 eta 3,95 artekoa da, balio minimoa eta maximoa aintzat hartuta, hain zuzen ere, nola ikasi jakitea eta egokitzeko arintasuna eta gaikuntzaren konpetentzietan lortutako balorazioak dira, hurrenez hurren.

Baina, bestalde, ikus daiteke:

- Nola ikasi jakitea, informazioa aztertzea eta antolatzea eta sareko lankidetzara dira balorazio okerrera duten hiru konpetentziak (3,76 batez beste).
- Tarteko puntuak daude –eta antzeko balorazioarekin– ahozko eta idatzizko komunikazioa, ekimena eta ekintzaitasuna eta pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea (3,82 batez beste).
- Balorazio onena duen konpetentzia aldaketetara egokitzeko arintasuna eta gaitasuna da (3,95, +0,12 balorazio onena duen bigarren taldearekiko).

2. grafikoa Konpetentzia garrantzitsuetan pertsonak duten gaikuntzaren rankinga

enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)



Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua (2020)

Balorazio “subjektibotik” “objektibora”: alderatu ahal izateko emaitza batzuk

Nabarmendu behar da pertsonen egindako kontsulta honen oinarria autoebaluazio-eriketa dela eta ohikoa izaten da benetan duten baino konpetentzia maila altuagoa dutela iriztea, bereziki alderdi subjektiboetan. Horrekin lotuta, eta EAerako edo Gipuzkoarako ondorioz izan ez arren, irakurmenean edo matematikan PIACCen³

³ Irakurmeneko eriketa, zailtasun mailakatu duena, oinarritzotik (1. maila) konplexuenera arte (5. maila). Kontsulta egindako herritarren banaketa erakusten du, kasu bakoitzean lortutako gehieneko mailaren arabera.

emaitzak erreferentzia adierazgarria izan daitezke ahozko eta idatzizko komunikazioarekiko eta pentsamendu kritiko eta arazoak konpontzearekiko. Bertan ikus daiteke Espainian, pertsona helduek ELGAko herrialdeetako eta aukeratutako herrialde multzoko batez bestekoarekiko konpetentzia maila baxuagoa dutela.

Erreferentzia moduan hartu behar dira emaitza horiek, baina lagungarri dira autobalorazioaren erantzun-banaketaren (ahozko eta idatzizko komunikazioa eta pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea) eta irakurmeneko eta matematikako balorazio objektiboaren arteko aldea ikusarazteko⁴.

2. taula Persona helduen irakurmena (PIACC)

Banaketa horizontala (%), lortutako maila gorenaren arabera

	1. maila baino baxuagoa	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila + 5. maila
Danimarka	4	12	34	40	10
Alemania	3	14	34	36	12
Holanda	3	9	26	41	19
Frantzia	5	16	36	34	8
Espainia	7	20	39	28	5
Italia	6	22	42	27	3
ELGA	5	15	34	35	10

Iturria: Skills Matter Additional results from the survey of Adult skills (OECD 2019); pertsonen konpetentziei buruzko inkestaren emaitzetatik abiatuta (PIAAC) (2012, 2015, 2018).

3. taula Persona helduen garapen matematikoa (PIACC)

Banaketa horizontala (%), lortutako maila gorenaren arabera

	1. maila baino baxuagoa	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila + 5. maila
Danimarka	3	11	31	38	17
Alemania	5	14	31	35	14
Holanda	3	10	28	39	18
Frantzia	9	19	34	29	9
Espainia	10	21	40	24	4
Italia	8	24	39	24	5
ELGA	7	16	33	31	11

Iturria: Skills Matter Additional results from the survey of Adult skills (OECD 2019); pertsonen konpetentziei buruzko inkestaren emaitzetatik abiatuta (PIAAC) (2012, 2015, 2018).

⁴ Ezinbestekoa da idatzizko komunikazioan nolabaiteko konpetentzia lortzeko, adibidez.

2.2. Konpetentzia garrantzitsuak eta generoa

Emakumeak ahozko eta idatzizko komunikazioan eta sareko lankidetzan gailentzen dira

Erantsitako taulan okupatutakoen (25-64 urte) gaikuntzaren balorazioa dago jasota, proposatutako konpetentzia garrantzitsuen panelarekiko, generoaren arabera. Lortutako datuak ranking gisa daude aurkeztuta (1etik 5era, gaikuntza txikienetik handienera) eta lortutako emaitzek honako hau adierazten dute

- Emakumeek batez besteko gaikuntza orokor handiagoa ematen diote beren buruari (3,84) gizonezkoek baino (3,79). Emakumeen aldeko alde hori proposatutako konpetentzia bakoitzean mantentzen da, pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzean izan ezik (3,81 vs. 3,84 kasu horretan).
- Gizonen eta emakumeen konpetentzia garrantzitsuetako gaikuntzaren rankinga nahiko antzekoa da: balorazio onena egokitze arintasan eta gaikuntzari dagokien, eta okerrera, aldiz, pentsamendu kritiko eta arazoak konpontzeari eta nola ikasi jakiteari.
- Baina ñabardurak tarteko balorazioa duten konpetentzietakoak dira: emakumeen kasuan, ahozko eta idatzizko komunikazioa eta sareko lankidetzak biltzen dute, eta gizonen kasuan, bi konpetentzietan duten gaikuntzarekiko egiten duten balorazioa dezentez baxuagoa da, eta balorazio okerrera duten blokerak pasatuko lirateke.

4. taula Pertsonen gaikuntza-indizea konpetentzia garrantzitsuetan, generoaren arabera (1etik 5era, oso baxutik oso altura)

enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)

	Emakumea	Gizona	Aldea (emakumea-gizona)
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	3,85	3,76	0,09
Informazioaren antolaketa eta analisisa	3,77	3,73	0,04
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpondu	3,81	3,84	-0,03
Nola ikasi jakitea	3,78	3,70	0,09
Sareko lankidetzak (pertsonek artean)	3,83	3,74	0,08
Egokitze arintasuna eta gaitasuna	3,96	3,94	0,03
Ekimena eta ekintzailetasuna	3,85	3,80	0,05
Irudimena eta jakin-mina	3,83	3,81	0,02

Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua (2020)

2.3. Konpetentzia garrantzitsuak eta adina


Pertsonek dituzten gaitasunekiko egiten duten balorazioa jaitsi egiten da adinarekin

Erantsitako taulan okupatuek (25-64 urte) proposatutako konpetentzia garrantzitsuekiko duten gaikuntzaren balorazioa dator jasota, ranking formatuan (1etik 5era, balorazio txikienetik handienera), eta adin taldearen arabera.

Lortutako emaitzek agerian uzten dute balorazio horrek, oro har, adinarekin beheranzko joera duen profila duela: grafikoak agerian uzten du proposatutako konpetentzia-panelaren batez besteko balorazioak 35-44 urteko taldean lortzen duela balio maximoa (3,80), eta hortik aurrera balorazioa jaitsi egiten da eta balio minimoa 55-64 urteko taldean lortzen du (3,70).

3. grafikoa Konpetentzia garrantzitsuetan pertsonek duten batez besteko gaikuntza

enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)



Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua (2020)

Azterketa zehatzagoa eginda, ikus daiteke adin taldearen arabera pertsonen artean dauden aldeak ñabardurak direla:

- Pertsonak gaikuntza mailarik altuena dutela uste duten kompetentziak berberak dira adin talde guztietan, eta egokitzeko arintasuna eta gaitasuna da kasu guztietan balorazio onenarekin nabarmentzen dena.
- Balorazio okerrena dutenen artean badaude adinaren arabeko aldeak. Hala, ekimena eta ekintzailetasuna (25-34 urte⁵), nola ikasi jakitea (35-44 urte) dira gazteenen bi taldeetarako, aldiz, informazioaren antolaketa eta analisia, seniorren bi taldeetarako⁶ (45-54 eta 55-64 urte).
- Kontuan hartu behar da lau adin taldeetan pertsonak gaikuntza maila ertaina ematen diotela beren buruari (baxua ere bai) ahozko eta idatzizko komunikazioaren eta informazioaren antolaketa eta analisiaren kompetentzietan.
- Lau adin taldeek kompetentzia pertsonalenetan (gaitasunak) gaikuntza-balorazio hobea erakusten dute objektiboagoak izan daitezkeenetan baino.

5. taula Pertsonen gaikuntza-indizea kompetentzia garrantzitsuetan, adin taldearen arabera (1etik 5era, oso baxutik oso altura)

enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)

	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	3,77	3,89	3,77	3,74
Informazioaren antolaketa eta analisia	3,78	3,87	3,66	3,61
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea	3,76	3,92	3,80	3,76
Nola ikasi jakitea	3,63	3,80	3,78	3,68
Sareko lankidetzaren (pertsonen artean)	3,79	3,86	3,78	3,59
Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna	3,95	4,02	3,92	3,84
Ekimena eta ekintzailetasuna	3,60	3,92	3,89	3,76
Irudimena eta jakin-mina	3,63	3,91	3,81	3,91

Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta kompetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua (2020)

⁵ Irudimena eta jakin-mina kompetentziarekin batera.


⁶ Errealitatean, 55-64 talderako, balorazio okerrena duena sareko lankidetzarena da (3,59), baina informazioaren antolaketa eta analisia kompetentziaren oso antzeko balorazioarekin (3,61).

2.4. Konpetentzia garrantzitsuak eta lortutako ikasketa maila

Pertsonen gaikuntzen balorazioa handitu egiten da lortutako prestakuntza mailarekin

Erantsitako taulan okupatutako (25-64 urte) gaikuntzaren balorazioa dago jasota, proposatutako konpetentzia garrantzitsuen panelarekiko, lortutako ikasketa mailaren arabera. Lortutako emaitzen arabera, agerian geratzen da hirugarren mailako prestakuntza maila duten pertsonen⁷ (3,97) egiten dutela gaikuntzarekiko balorazio onena eta beste bi prestakuntza mailetako pertsonen egindako baloraziotik urruti (3,62 eta 3,66, lehen mailako ikasketetarako eta bigarren mailakoetarako⁸, hurrenez hurren).

4. grafikoa Konpetentzia garrantzitsuetan pertsonen duten batez besteko gaikuntza, adin taldearen arabera



Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua (2020)

Azterketa zehatzagoa eginda, ikus daiteke adin multzoaren arabera pertsonen artean dauden aldeak ere ñabardurak direla:

- Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna da hiru ikasketa mailetako pertsonen balorazio onena eman duten konpetentzia.

⁷ Unibertsitateko prestakuntza-zikloak, erdi-goi mailakoak (diplomaturak eta antzekoak, hiru ikasturteko iraupena dutenak –Bologna aurreko sisteman–) eta goi-mailakoak (graduak eta lizentziaturak, masterrak eta doktoretzak), goi-mailako lanbide-heziketarekin batera.

⁸ Bigarren mailako hezkuntza orokorra eta oinarrizko mailako eta erdi mailako lanbide-heziketa.

- Hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonak antzera ebaluatzen dituzte ahozko eta idatzizko komunikaziorako, informazioaren antolaketa eta analisirako eta pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzeko konpetentziak.
- Aldiz, beste bi prestakuntza mailako pertsonak uste dute balorazio baxuagoa dutela konpetentzia horietan dituzten gaitasunek; hau da, ikasketa mailaren arabera pertsona talde bakoitzaren konpetentzien rakingean, konpetentzia multzo hori balorazio okerrean duten hiruren artean dago.
- Ikasketa maila altueneko pertsonak konpetentzia pertsonalaren edo gaitasunaren (ekimena eta ekintzaitasuna edo jakin-mina eta irudimena, edo baita ikasten jakitea ere) balorazio erlatibo okerragoa ematen diote beren buruari. Kontrara, lehen mailako edo bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak hain zuzen ere konpetentzia horietan ematen diote beren buruari ebaluazio onena.

6. taula Pertsonen gaikuntza-indizea konpetentzia garrantzitsuetan, ikasketa mailaren arabera (1etik 5era, gaikuntza oso baxutik oso altura)

enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)

	Lehen mailako ikasketak	Bigarren maila ikasketak	Hirugarren maila ikasketak
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	3,59	3,60	4,00
Informazioaren antolaketa eta analisisa	3,42	3,52	4,00
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpondu	3,60	3,53	4,07
Nola ikasi jakitea	3,45	3,63	3,90
Sareko lankidetzak (pertsonek artean)	3,51	3,62	3,97
Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna	3,86	3,82	4,05
Ekimena eta ekintzaitasuna	3,77	3,79	3,85
Irudimena eta jakin-mina	3,74	3,75	3,89

Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua (2020)

Azken batean:


- Konpetentzia garrantzitsuen inguruan pertsonak egiten dituzten balorazioak lortutako ikasketa mailaren arabera baldintzatuta daude.
- Pertsonak, ikasketa maila handitu ahala, curriculumaren gertueneko konpetentzietan fokalizatzen dute gaikuntza, eta gaitasun pertsonalak gutxiago baloratzen dituzte.
- Aldiz, ikasketa maila baxuagoak dituzten pertsonak konpetentzia kognitiboetan baino gaitasun pertsonalaren gehiago oinarritutako gaikuntza-rankinga egiten dute.

2.5. Gipuzkoako pertsona helduek lortutako ikasketa maila

Proposatutako kompetentzietan pertsonen gaikuntzaren balorazioan ateratako emaitzak bat datoz pertsonen ibilbidearekin, lortutako prestakuntzari eta enpleguari dagokionez. Horrekin lotuta, hezkuntzaren udal-estatistikak (Eustat) erakusten duenez (2019):

- Pertsonen heren batek (% 31,3) unibertsitate mailako ikasketak ditu, eta proportzio hori zertxobait altuagoa da emakumeen artean (% 37,2).
- Hiru gizonetik batek ikasketa profesionalak ditu (% 30,3), aldiz, emakumeen artean bostetik batek (% 22,1).
- Hamar heldutik lauk ikasketa orokorrak ditu (% 42,4), eta proportzio hori 2010ean erregistratutakoa baino baxuagoa da (% 52,7).

5. grafikoa Ikasle ez diren Gipuzkoako herritar helduak, lortutako ikasketa mailaren arabera (%)



Lehen mailakoak edo gutxiago (OHO, Lehen Hezkuntza, ikasketarik gabe); Bigarren mailakoak (DBH, Batxilergoa, BBB-UBI eta abar); Profesionala (lanbide-heziketa, modulu profesionalak eta prestakuntza-zikloak eta antzekoak), Unibertsitatekoak (ertainak-goi mailakoak: diplomaturak, ingeniari teknikoak, erizaintza eta antzekoak; goi mailakoak: graduak, lizentziaturak, masterra, doktoretza).

Iturria: Hezkuntza arloko Udal Estatistika (Eustat)

Hau da, 25-64 urte arteko pertsonen artean enplegura bideratutako prestakuntza maila nagusitzen da, prestakuntza profesionalaren (% 26,3) edo unibertsitateko prestakuntzaren (% 31,3) garrantzi handiarekin. Hau da kompetentziak baloratzeko kontsultatutako herritarren oinarriak lortutako prestakuntza, baina enplegua duten

pertsonetara mugatuta, beraz, lortutako ikasketa maila altuagoa izango da. Era berean, emakumeek kompetentzietan adierazi duten balorazio hobexegoa azaltzen laguntzen du, unibertsitate mailako prestakuntzari dagokion presentzia handiagoa dela eta.

7. taula Ikasle ez diren Gipuzkoako herritar helduak (25-64 urte), lortutako ikasketa mailaren, adin taldearen eta generoaren arabera

enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)

	Lehen mailakoak edo gutxiago	Bigarren mailakoak	Profesionala	Unibertsitatekoak	Pertsona helduak	
					Kop.	% bertikala
Gizonak						
25-34 urte	2.519	7.877	11.116	9.157	30.669	8,3
35-44 urte	10.795	11.325	14.406	15.039	51.565	14,0
45-54 urte	16.700	7.322	18.486	13.469	55.977	15,2
55-64 urte	16.584	8.902	12.306	9.750	47.542	12,9
Emakumeak						
25-34 urte	2.052	6.525	6.810	14.302	29.689	8,1
35-44 urte	6.810	9.519	10.254	23.092	49.675	13,5
45-54 urte	13.295	7.511	13.832	19.031	53.669	14,6
55-64 urte	18.851	9.466	9.436	11.452	49.205	13,4

Lehen mailakoak edo gutxiago (OHO, Lehen Hezkuntza, ikasketarik gabe); Bigarren mailakoak (DBH, Batxilergoa, BBB-UBI eta abar); Profesionala (lanbide-heziketa, modulu profesionalak eta prestakuntza-zikloak eta antzekoak), Unibertsitatekoak (ertainak-goi mailakoak: diplomaturak, ingeniari-ta teknikoak, erizaintza eta antzekoak; goi mailakoak: graduak, lizentziaturak, masterra, doktoretza).

Iturria: Hezkuntza arloko Udal Estatistika (Eustat)

Adin taldearen eta generoaren arabera, Gipuzkoako helduek lortutako ikasketa mailan izandako hobekuntza belaunaldiz belaunaldi hezkuntzan izandako aurrerapenari zor zaiola ikus daiteke. Hala, adin taldeen arabera datuek gazteen artean ikasketa maila handiagoa dagoela erakusten dute. Emaiza hori dago gazteen taldeak (34-44 urte) kompetentzietan egiten duen balorazio hobearen oinarrian; izan ere, senior taldeak baino ikasketa maila askoz ere altuagoak ditu, eta nolabaiteko "esperientzia" ere bilduta, kompetentzia pertsonalenak ere baloratzen ditu.

3. Konpetentzia gakoak egungo eta etorkizuneko enpleguan

3.1. Konpetentzia garrantzitsuetan egungo eta etorkizuneko eskakizun mailaren pertzepzioa

Jada eskatzen dira konpetentzia garrantzitsuak, eta etorkizuneko enpleguan ere eskatuko dira

Kontsulta egin zaien gehienen iritziaren arabera, proposatutako konpetentzia garrantzitsuak izatea eskatzen da gaur egungo enpleguan, eta etorkizunekoan ere eskatuko da. Adostasun handia dago, proposatutako konpetentzia garrantzitsuek oso balorazio antzekoa jaso dute, eta ez dago alde nabarmenik haien artean –ehuneko hamar puntuko aldea, besterik ez–. Hori aintzat hartuta, hau da ezarritako sailkapena, eskakizun maila handiena duenetik txikienera ordenatuta:

8. taula Konpetentzia garrantzitsuen oraingo eta/edo etorkizuneko eskakizun maila

Baiezko erantzunen %; enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)

	Guztira
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	91,0
Informazioaren antolaketa eta analisisa	86,4
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea	90,2
Nola ikasi jakitea	87,4
Sareko lankidetzak (pertsonek artean)	87,2
Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna	95,0
Ekimena eta ekintzailetasuna	84,4
Irudimena eta jakin-mina	82,4

Iturria: Pertsonek enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua (2020)


Eskuratutako emaitzak pertsonen haien gaikuntzari buruz egin duten balorazioarekin lerrotatuta daude. Erantsitako grafikoan dago jasota pertsonen gaikuntzari buruzko

balorazioa (1etik 5era, balorazio maila txikienetik handienera) eta enpleguko eskakizun maila (baiezko ehunekoak). Konpetentzia garrantzitsuen sortari lotutako gaikuntzaren batez-besteko balioa 3,91koa da, eta konpetentzia horien batez besteko eskakizun maila % 88koa da. Hala,

- Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna da ebaluazio onena jaso duen konpetentzia, eta asko eskatzen dela iruditzen zaie.
- Erdiko blokean bost konpetentzia interesgarri daude, batezbestekoaren inguruan baitaude pertsonen ahaleginean edo gaikuntzan, baina nolabaiteko eskakizun mailarekin: ikasteko eta hobetzeko espazioak irekitzen dituzte eta konpetentzia objektibagarriak dira pertsonen gaikuntzan.
- Multzo horretan daude ahozko eta idatzizko komunikazioa eta pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea; baita sareko lankidetzeta, nola ikasi jakitea eta informazioaren antolaketa eta analisia.
- Posible da, jakina, irudimena eta jakin-mina eta/edo ekimena eta ekintzailetasuna konpetentziak konpetentzia garrantzitsuen katalogoan sartzea, baina pertsonak horietan gaituta sentitu arren, gutxien eskatzen direnak dira.

6. grafikoa Enpleguko konpetentzia garrantzitsuen eta eskakizun-mailaren balorazioa

enpleguan aktiboak diren pertsonak (25-64 urte)



Iturria: Pertsonen enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Departamentua (2020)

3.2. Konpetentzia gakoak egungo eta etorkizuneko eskakizun mailaren pertzepzioa eta pertsona motak

Gizon-emakumeek orain eskatzen diren eta etorkizunean eskatuko diren konpetentziatzat hartzen dituzte

Emakumeen eta gizonen emaitza bat dator gaur egungo eta etorkizuneko enpleguko konpetentzia garrantzitsuen eskakizun mailarekin. Erantsitako taulak erakusten duen moduan, konpetentzia garrantzitsu hauetako bakoitza eskatzen dela edo eskatuko dela adierazi duten pertsonen ehunekoa ia bat dator. Hori bai, emakumeek gehiago aipatu dute, baina salbuespena dira informazioaren antolaketa eta analisia eta irudimena eta jakin-mina konpetentziak.

9. taula Konpetentzia garrantzitsuen oraingo eta/edo etorkizuneko eskakizun maila, generoaren arabera

Baiezko erantzunen %; okupatuak (25-64 urte)

	Emakumea	Gizona	Aldea (emakume-gizon)
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	93,1	89,0	4,1
Informazioaren antolaketa eta analisia	85,4	87,4	-2,0
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpondu	90,2	90,2	0,1
Nola ikasi jakitea	89,0	85,8	3,2
Sareko lankidetzak (pertsonek artean)	87,4	87,0	0,4
Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna	95,9	94,1	1,8
Ekimena eta ekintzailetasuna	84,6	84,3	0,3
Irudimena eta jakin-mina	81,5	83,3	-1,8

Iturria: Pertsonek enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua (2020)

Pertsonek ez du alderik ekarri enpleguan konpetentzia garrantzitsuek orain eta etorkizunean duten eta izango duten eskakizun mailaren pertzepzioan

Pertsonek gaur egungo eta etorkizuneko enpleguko konpetentzia garrantzitsuen eskakizun mailaren inguruan egiten duten balorazioari dagozkion emaitzak partekatutako dira eta ez dira adinaren araberakoak. Konpetentzia guztiak eskatuko dira eta agian, konpetentzia bakoitzaren garrantzi maila aldatu egin daiteke, batez ere egiten den okupazioaren arabera.

Baliteke galderaren planteamenduak eskuratutako emaitzaren zorroztasuna mugatu izana. "Bai" edo "ez" aukeraren aurrean, balorazio positiboa ematen da beti. Horrek erakusten du lanpostuetako konpetentzien profilean gero eta gehiago hartzen direla aintzat lanpostuari dagozkion ezagutza edo eduki teknikoak, baina horrez gain, gero eta garrantzitsuagoak direla egunerokoan zereginak hobeto egiten laguntzen duten trebezia pertsonalak (ikas daitezke).

10. taula Konpetentzia garrantzitsuen oraingo eta/edo etorkizuneko eskakizun maila, adin taldeen arabera

Baiezko erantzunen %; okupatuak (25-64 urte)

	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	92,3	94,3	86,3	90,5
Informazioaren antolaketa eta analisia	87,5	85,8	86,3	86,5
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea	86,5	92,0	89,7	91,9
Nola ikasi jakitea	87,5	86,9	85,6	91,9
Sareko lankidetzaren (pertsonek artean)	87,5	89,2	86,3	83,8
Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna	95,2	97,2	93,2	93,2
Ekimena eta ekintzailatasuna	80,8	84,7	87,0	83,8
Irudimena eta jakin-mina	85,6	80,7	81,5	83,8

Iturria: Pertsonek enplegurako gaitasunak eta konpetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneen Departamentua (2020)

Konpetentzia garrantzitsuen eskakizun mailaren (oraingoa eta etorkizuneko) pertzepzioa gero eta handiagoa da lortutako prestakuntzarekin lotuta

Konpetentzia garrantzitsuen gaur egungo eta etorkizuneko eskakizun mailaren pertzepzioa nahiko partekatua da aintzat hartu ditugun hiru ikasketen mailen arabera. Hala ere, baietz erantzun dutenen proportzioa gero eta handiagoa da lortutako prestakuntzarekin lotuta. Hala, honako hauek aipagarriak dira:

- Sareko lankidetzaren eta egokitzeko arintasuna eta gaitasuna konpetentzietan ez dago alderik eskatu egiten direla dioten pertsonek proportzioan, lortutako prestakuntza mailaren arabera.
- Ahozko eta idatzizko komunikazioa, informazioaren antolaketa eta analisia, eta nola ikasi jakitea konpetentzietan dagokienez, baietz erantzun duten pertsonek ehunekoak gora egiten du lortutako prestakuntza mailarekin.

- Azkenik, ekimena eta ekintzailetasuna eta irudimena eta jakin-mina dira hiru kasuetan aipatutako bi kompetentziak (pixka bat gutxiago) eta, era berean, profilak pixka bat gora egiten du lortutako prestakuntza mailarekin.

11. taula Kompetentzia garrantzitsuen oraingo eta/edo etorkizuneko eskakizun maila, lortutako prestakuntza mailaren arabera

Baiezko erantzunen %; okupatuak (25-64 urte)

	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak
Ahozko eta idatzizko komunikazioa	78,9	87,9	97,0
Informazioaren antolaketa eta analisisia	73,7	83,7	92,4
Pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea	82,1	90,1	93,2
Nola ikasi jakitea	76,8	87,2	91,3
Sareko lankidetzak (pertsonek artean)	84,2	85,8	89,0
Egokitzeko arintasuna eta gaitasuna	92,6	95,7	95,5
Ekimena eta ekintzailetasuna	75,8	83,0	88,3
Irudimena eta jakin-mina	76,8	80,9	85,2

Iturria: Pertsonek enplegurako gaitasunak eta kompetentziak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua (2020)

Azken finean, oraingo eta etorkizuneko enpleguan proposatutako kompetentzia garrantzitsuen eskakizun mailari lotuta dagoen pertzepzioak honako hauek erakusten ditu:

- Denak dira garrantzitsuak eta denak eskatzen dira edo eskatuko dira, baina hauek nabarmentzen dira: egokitzeko arintasuna eta gaitasuna, ahazko eta idatzizko komunikazioa eta pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea.
- Ez dago iritzietan adinaren edo generoaren araberako alderik.
- Alde interesgarriak daude ordea ikasketak mailaren arabera; izan ere, ikasketak mailak gora egin ahala, baiezkatu egiten da kompetentzia horien garrantzia. Gainera, aldeak prestakuntzari lotuen dauden kompetentzietan daude kontzentratuta (ahazko eta idatzizko komunikazioa, informazioaren antolaketa eta analisisia eta pentsamendu kritikoa eta arazoak konpontzea). Esan daiteke enplegurako kompetentzia garrantzitsuetan uztartuta daudela zeharkako ezagutza (komunikazioa, informazioa, erabakitzea...) kudeatzearen osagaia eta pertsonaren kudeaketa lan-ingurunean (sareko lankidetzak, ekimena eta ekintzailetasuna...), eta gainera, aurreikusten da aldakorrak izango direla (arintasuna eta egokitzeko gaitasuna).



Izenburua:	Pertsonen enplegurako kompetentzia garrantzitsuak; pertsonen ezaugarriak 72. Dokumentua, 2020ko urria
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua Gipuzkoako Foru Aldundia
Lanketa	IKEI, research & consultancy S.A.

